

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 4244

*AGINDUA, 2014ko urriaren 8koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren babesean 2014ko ekitaldian nekazarien elkarteei ematekoak diren diru-laguntzetarako deialdia egiteko dena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzen duten nekazarien elkarteak eta horien batasunak aitortzeko oinarritzko arauak eta betekizunak ezartzea.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren 2008ko ekainaren 30eko Aginduaren bidez aldatu egin ziren hazitarako patata-ekoizleen elkarteak aitortzeko gutxieneko ekoizpen- eta negozio-kopurua eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2010eko azaroaren 24ko Aginduaren bidez ezarri ziren, ardi- eta ahuntz-okelaren eta ardi-esnearen sektorekoan diharduten nekazaritza ekoizleen elkarteak aitortzeari begira, gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-kopurua eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua. Azkenik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko ekainaren 10eko Aginduaren bidez ezarri zen haragitarako behi-azienden sektoreko nekazarien ekoizle-elkarteak eta horien batasunak aitortzeko gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-kopurua eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua.

Urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, produktu bakoitzeko edo produktu-multzo bakoitzeko, nekazarien elkarteak edo horien batasunak eratzeko eta/edo abian jartzeko laguntzak emateko araubide bat ezarri ahal izango da, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu bidez (egun, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua). Halaber, agindu honen bidez deitutako laguntzak 2006ko abenduaren 15eko 1857/2006 Erregelamenduan (EB) ezarritakora egokitzen dira.

Bestalde, 1/2011 Legegintzako Dekretuak eta 4/2013 Legeak ahalbidetu egiten dute aurtengo laguntzetarako deialdia egitea (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bitartez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen da, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena arautzen da; abenduaren 20ko 4/2013 Legearen bidez, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dira).

Hori dela eta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

1.– Agindu honen xedea da nekazarien ekoizle-elkarte gisa edo horien batasun gisa aitortutako erakundeen ekoizpen- eta merkataritza-egiturak hobetzeko 2014ko laguntzetarako deialdia egitea.

2.– Diru-laguntzak Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1857/2006 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren barruan daude. Izan ere, erregelamendu hori nekazaritza-produktuak ekoizten dituzten enpresa txiki eta ertainentzako diru-laguntzei Ituneko 87. eta 88. artikulua aplikatzeari buruzkoa da (haren bidez, 70/2001 EE Erregelamendua aldatu da).

Bigarrena.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diru-laguntza 2013-2014ko merkaturatze-kanpainako funtzionamendu-gastuetarako eman ahal izango da; eta honako hauek hartuko dira halakotzat:

– Administrazio-gastuak, hau da: administrazioko langileen eta langile teknikoen soldatak eta lansariak; elkartearen kargurako Gizarte Segurantzak; lan-kontratupeko pertsonalaren prestakuntza, garraioa, eta bizitza, istripu edo erantzukizun zibileko aseguruak, eta zerbitzu-errentamenduan kontratatutako pertsonalaren lansariak. Kanpoan geratzen dira, berariaz, langileak kaleratzearen kalte-ordainengatikoko gastuak, izan kaleratze bidezkoa nahiz ez-bidezkoa.

– Erakundeen berezko langileen eta erakunde horietako zuzendaritza-batzordeko kideen dietak eta bidaia-gastuak, beren eginkizunak betetzen egindako bidaienak: zerbitzu-arrazoiengatik eragindako kalteen ordainei buruzko irailaren 2ko 16/1993 Dekretuan 2. multzorako ezarritako zenbatekoa ordainduko da, gehienez ere.

– Errentamenduak eta kanonak.

– Konponketak eta zaintza-lanak.

– Bulegoko materiala.

– Hornidurak.

– Komunikazioak eta garraio-sariak.

– Kanpo-aholkularitza arlo tekniko eta juridikoan, kontabilitate-, zerga- eta lan-arloetan, eta kontu-auditorien gastuak. Kanpoko aholkularitza-gastuei dagokienez, berriz, aurkeztutako funtzionamendu-gastuen guztizko aurrekontuaren % 25 gainditzen ez dutenak baizik ez dira diruz lagunduko.

Hirugarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Aitorpena jaso eta hurrengo bost urteetan emango den laguntzaren zenbatekoa honelakoa izango da: lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren urteetarako, gehienez, elkartek 2013-2014ko kanpainan zehar merkaturatutako produktuen balioaren % 5, % 5, % 4, % 3 eta % 2, hurrenez hurren, betiere diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 gainditu gabe, ez eta honako zenbateko hauek gainditu gabe ere.

– 100.000 euro, ekoizle-elkartek baldin badira,

– 150.000 euro, ekoizle-elkarteen batasunak baldin badira, eta

– 200.000 euro, bi elkartek edo gehiagok bat egitearen ondorioz sortutako ekoizle-elkartek baldin badira, edo dena delako produktuak batera merkaturatzeko neurriak hartu dituzten elkartek baldin badira eta neurri horiek bat-egite baten pareko efektua baldin badute, betiere bat-egitearen lehenengo hiru urteetan, edo antzeko efektua duten neurriak hartu.

Produktuak batera merkaturatzearen esparruan bi elkartek edo hainbatek bat-egite baten pareko neurriak hartu dituztela joko da, baldin eta elkartetako batek adostasun horretara iritsi

diren elkarte guztietako bazkideen produktuen merkaturatzea bere gain hartzen badu osorik eta modu esklusiboan.

2.– Agindu hau aplikatzearen ondorioetarako, merkaturatze-kanpaina dagokion produktuaren ekoizpen- eta merkaturatze-ziklo naturalari egokitu zaio, eta, beranduenez, 2014ko irailaren 30ean bukatuko da.

Laugarrena.– Onuradunak.

Agindu honetan ezarrita dauden laguntzak nekazaritza-ekoizleen elkarteek eta horien batasunek jaso ahal izango dituzte, betiere, urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretua aplikatuz (2008ko ekainaren 30eko, 2010 azaroaren 24ko eta 2011ko ekainaren 10eko dekretuek egokitutakoa) halakotzat onartuta badaude eta, diruz laguntzeko moduko gastuak egiteaz gain, aginduan ezarrita dauden baldintzak betetzen badituzte.

Bosgarrena.– Baldintzak.

Nekazaritza Ekoizleen Elkarteek agindu honetan deitutako laguntzak eskatu ahal izango dituzte, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretua aplikatuz (2008ko ekainaren 30eko Aginduak egokituta), halakotzat onartua izatea eta Nekazaritza Ekoizleen Elkartearen eta horien Batasunen Erregistroan inskribatuta egotea.

b) 2013-2014ko kanpainan, elkarteak nekazaritza-produktuak merkaturatu izana.

c) Elkartearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egotea.

d) Irabaziak lortzeko asmorik ez izatea.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzak direla-eta hasitako itzultze- edo zigor-prozedura batean sartuta ez egotea edo prozedura amaituta izatea.

g) Ezingo dira onuradun izan laguntza publikoak lortzeko zigorra, administratiboa edo penala, dutenek, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat.

Seigarrena.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Laguntza-eskabideak Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari bidali behar zaizkio, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) aurkeztuko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluan ezarritako tokietako batean.

2.– Eskatzaileek agindu honen eranskinetan jasota dauden eredu-orrietan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, jarraian adierazten diren agiriekin batera. Ez da beharrezkoa izango lehendik aurkeztutako agiriak berriro aurkeztea, baldin eta dagoeneko Administrazioaren eskuetan badaude eta ezertan aldatu ez badira. Hona agiriok:

a) Legezko ordezkariaren NANaren eta ahalordetze-eskriuraren fotokopia.

- b) Elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.
- c) Legezko ordezkariaren ziurtagiria, merkaturatutako ekoizpenaren bolumena eta balioa zehazten dituen, eta erosketen eta gastuen kontabilitate-laburpenaren kopia.
- d) 2013-2014ko merkaturatze-kanpainaren balantzearen edo emaitzen kontuaren kopia.
- e) Bat-egite baten pareko efektua duten neurriak hartzeko erabakien kopia, hala badagokio.
- f) Ziurtagiria, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duena.
- g) Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla dioena; bertan, gainera, honako hauek adieraziko dira: Euskal Autonomia Erkidegoaren Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aplikatzearen ondorioz hasitako itzultze- edo zigor-prozeduraren batean sartuta ez dagoela edo prozedura amaituta dagoela eta diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galarazten dion legezko debekurik ez duela, sexu-bereizkeria egin izanaren ondoriozkoak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorritik.

3.– Eskararekin batera, 2013-2014ko merkaturatze-kanpainan zehar egindako gastuen eta inbertsioen fakturak eta banku-ordainagiriak aurkeztu beharko dira, agindu honetako hamabigarren ebazpen-zatian xedatutakoarekin bat etorritik.

4.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak eransteke eskatuko zaio interesatuari, eta horretarako hamar eguneko epea duela adieraziko zaio; orobat adieraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, betiere Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria ebazpena eman ondoren, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.– Nolanahi ere, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edota informazio guztia eskatu ahal izango dio enpresa eskatzaileari. Arau honetan berriaz xedatu ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Zazpigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko, hilabeteko epea izango da gehienez ere, agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera.

Zortzigarrena.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria da agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Diru-laguntzak emateko prozedura honako hau izango da: laguntza emango zaie agindu honetan xedatutakoa betetzen duten eskatzaile guztiei, agindu honen hirugarren ebazpen-zatian laguntzari dagokionez ezarritako gehieneko muga aintzat hartuta.

3.– Baldin eta agindu honen hamaikagarren ebazpen-zatian ezarritako zuzkidura osoa ez bada aski aurkezten diren eskabide guztietarako (hau da, agindu honen hirugarren ebazpen-zatian ezarritako zenbatekoa aintzat hartuta), orduan, zuzkidura hori eskakizunak betetzen dituzten eskabide

guztien artean banatuko da, betiere eskabide guztiak osorik ordaintzeko hasieran haietako bakoitzarentzat kalkulatu ziren zenbatekoen arabera eta proportzioan.

Bederatzigarrena.– Ebazpena.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari dagokio laguntza-eskabideak emateko edo ukatzeko ebazpena ematea. Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek zehaztu beharko ditu: xedea, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, justifikazio-modua eta diru-laguntza zer xedapenen babesean ematen den.

2.– Ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epealdi horretan berariazko ebazpenik izan ezean, interesdunek eskabideak ezetsi direla ulertu beharko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3.– Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak diru-laguntza emateko edo ukatzeko egi-ten duen ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari. Horretarako, hilabeteko epea izango du, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, edo hiru hilabeteko epea administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

4.– Laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinarazi behar bada ere, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren ebazpen bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da agindu honen itzalpean laguntza jasoko duten elkarteen zerrenda, laguntzaren zenbatekoa zehaztuta duela, hura jendaurrean jartze aldera.

Hamargarrena.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Diru-laguntza zertarako eman den, helburu horretarako erabiltzea.
- b) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren esku jarri behar dituzte inbertsioa eta gas-  
tuak egin direla frogatzeko behar diren agiri guztiak.
- c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari laguntzak nola erabili  
diren eta laguntzen helburuak bete diren egiaztatzeko eskatzen duten informazio guztia ematea.
- d) Administrazio baten edo erakunde publiko zein pribatu baten beste laguntza edo diru-lagun-  
tzaren bat lortuz gero helburu bera betetzeko, horren berri ematea idatziz Ekonomiaren Garapen  
eta Lehiakortasun Sailari.
- e) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat, objektiboa zein subjektiboa, alda-  
tuz gero, horren berri ematea idatziz Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bate-  
gina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan ezarritako  
betebeharrak betetzea.

#### Hamaikagarrena.– Finantzazioa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko, berrehun mila (200.000) euro bideratu dira. Diru-zenbateko hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko aurrekontu orokorretan horretarako gordetako partidatik dator.

2.– Zenbateko hori handitzea egongo da, unean uneko aurrekontu atxikimenduaren arabera, bai eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondoriozko aurrekontu-baliabideen arabera ere, betiere laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen bidez emango da horren berri.

#### Hamabigarrena.– Gastuak eta inbertsioak justifikatzea.

1.– Emandako laguntza gastatu dela justifikatzeko, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, eskaerarekin batera, egindako gastuen fakturak eta banku-ordainagiriak aurkeztu behar zaizkio.

2.– Gastuaren frogagiriak eskabidea aurkeztu den merkaturatze-kanpainakoak izango dira. Aparteko kasuetan, enpresak eskaturik eta abian den urteko abenduaren azken hamabostaldia baino lehen justifikatuz gero, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak gastuak gauzatzeko epea luzatu ahal izango du, hasieran onetsitako diru-laguntza bere hartan utzita. Luzapen hori ezingo da hasierako epearen erdia baino luzeagoa izan.

3.– Agiriei jatorrizkoak izan behar dute edo, bestela, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak konpultsatutako fotokopiak.

4.– Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak agiri osagarriak ere eskatu ahal izango ditu, egoki iritziz gero; hala egiten badu, arrazoiak azaldu beharko ditu.

#### Hamahirugarrena.– Ordainketa.

1.– Ordainketa bakarra izango da, eta gastua justifikatu ondoren egingo da. Horretarako, aurreko artikuluan aipatutako agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– Eskatzaileei ez zaie laguntzarik ordainduko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere erakunde autonomoek emandako gisa bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasitako itzultze- edo zigor-prozeduraren batean sartuta badaude, eta prozedura horiek amaitu gabe badaude.

#### Hamalagarrena.– Diru-laguntzak emateko baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntzak emateko baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada, eta, edozein kasutan, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuetatik xede berbererako laguntzak edo diru-laguntzak jaso badira, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere agindu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Ondorio horietarako, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak behar den aldaketa-ebazpena emango du, eta, bertan, diru-laguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doituko dira; horretarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura aplikatuko da.

2.– Baldin eta gastuaren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino gutxiago bada, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren ebazpen bidez. Murrizketa dagokion proportzioan egingo da, aurreko paragrafoan ezarritako prozedurari jarraituz.

3.– Hasieran aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa handitzen bada, ebazpen-proposamenaren fasera iritsi aurretik soilik sartu ahal izango da espedientean. Geroago handitutako aurrekontua aurkezteak ez du ekarriko laguntzaren zenbatekoa gehitzea.

Hamabosgarrena.– Uko egitea.

Onuradunak galdu egingo du ebazpenaren bidez aitortutako eskubidea, bai eta laguntza osoa edo haren zati bat jasotzeko eskubidea ere, baldin eta laguntzari uko egiteko idazki bat aurkezten badu; Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak uko-egitea onartu beharko du, ebazpen bidez.

Hamaseigarrena.– Ez-betetzeak.

1.– Hurrengo paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, honako hau joko da ez-betetzetat: jarduerak sortutako gastuetarako diru-laguntzak eman badira, jarduera horiek ez egitea.

2.– Nolanahi ere, onuradunak agindu honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako eskakizunetako bat edo diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzetako bat betetzen ez badu, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan ezarritako itzultze-kasuren batean baldin badago, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak, ez-betetzearen espedientea izapidetu ondoren (interesduna entzunda), beste ebazpen bat emango du, eta, bertan, diru-laguntzarako eskubidea galdu dela aldarrikatuko du eta, behar bada, jasotako laguntzak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola aginduko du, hala xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan. Horrek guztiak ez ditu eragotziko bidezko diren gainerako ekintzak. Onuradunek jaso dituzten laguntzak eta dagozkion legezko interesak diru-sarrera publikotzat hartuko dira, legezko ondorio guztietarako.

3.– Itzultze-prozedura arau-hauste administratibo baten ondorioa bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, dagokion zehatze-prozedura hasteko.

Hamazazpigarrena.– Laguntzen bateragarritasuna eta bateraezintasuna.

Beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuek agindu honetan ezarritako xede bererako ematen dituzten laguntzak ere agindu honetakoekin bateragarriak izango dira, baldin eta diru-laguntzek, batzuk eta besteak gehituta, agindu honetan ezarritako mugak gainditzen ez badi-tuzte. Hala ere, bateraezinak izango dira Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak xede bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Laguntza guztien baturak esandako mugak gaindituz gero, agindu hau dela bide emandako laguntzari muga horretatik gorako kopurua kenduko zaio.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, betiere agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 8a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.



2014ko urriaren 13a, astelehena

## ERANSKINA

## I. ESKABIDE-ORRIA

ERREGISTROKO SARRERA EGUNA

Jn./And.: ..... NAN zenbakia: .....

Honen ordezkari:

Elkartea: .....

IFZ/IFK: .....

Kalea eta zk.: .....

Telefonoa..... Faxa: ..... E-maila: .....

Udalerria: ..... (Lurraldea)..... PK.....

Jarduera-arloa: .....

Harremanetan jartzeko pertsona: ..... Tel. ....

Honako hau eskatzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskuratu ahal izatea. Nekazaritza ekoizleen elkarteei ematekoak diren diru-laguntza horietako 2014ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko urriaren 8ko Aginduaren bidez egin zen.

EGUNA ETA LEGEZKO ORDEZKARIAREN IZENPEA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jakinarazten dizu, inprimaki honen bidez eskatzen zaizkizun datuak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, tratatzeko. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen denez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara idazkia bidali beharko duzu, bera baita zure datuak tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskabide-orria.
- Legezko ordezkariaren NANaren eta ahalordetze-eskritturaren fotokopia.
- Elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.
- Legezko ordezkariaren ziurtagiria, merkaturatutako ekoizpenaren bolumena eta balioa zehazten duena, eta erosketen eta gastuen kontabilitate-laburpenaren kopia.
- 2013-2014ko kanpainako balantzearen edo emaitzen kontuaren kopia.
- Bat-egite baten pareko efektua duten neurriak hartzeko erabakien kopia, hala badagokio.
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela ziurtatzen duen egiaztagiria.
- Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla dioena; bertan, gainera, honako hauek adieraziko dira: Euskal Autonomia Erkidegoaren Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aplikatzearen ondorioz hasitako itzultze- edo zigor-prozedura batean sartuta ez dagoela edo prozedura amaituta dagoela eta diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galarazten dion legezko debekurik ez duela, sexu-bereizkeria egin izanaren ondoriozkoak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorritz.

<b>II. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA</b>
---

Jn./And.: \_\_\_\_\_ NAN zk \_\_\_\_\_

Elkarte eskatzaile honen ordezkari gisa: \_\_\_\_\_ IFK: \_\_\_\_\_

**ADIERAZTEN DU:**

- a) Laguntza-eskabidean adierazitakoa egia dela, eta eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak benetakoak direla; gezurrik edo datu okerrik azalduz gero, erantzukizun osoa bere gain hartuko duela; eta ez duela adieraziko gezur edo datu oker horiek eragin dituzten gertaerak ez zituela ezagutzen.
- b) Honako eskabide honetaz gainera, behean ageri diren erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatu diet, eta/edo haien laguntza jaso dut proiektu honetarako; eta, gainera, konpromisoa hartzen dut aurrerantzean ere proiektu honetarako aurkezten ditudan laguntza-eskabide guztien berri emateko:

Eskatera-data	Erakundea	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako laguntza

- c) Euskal Autonomia Erkidegoaren Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aplikatzearen ondorioz hasitako itzultze- edo zigor-prozedura batean sartuta ez dagoela edo prozedura amaituta dagoela, eta diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galarazten dion legezko debekurik ez duela, sexu-bereizkeria egin izanaren ondoriozkoak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz.

Konpromisoa hartzen du, halaber, proiektua gauzatu dela egiaztatzeko beharrezko den dokumentazio guztia Eusko Jaurlaritzaren esku jartzeko.

\_\_\_\_\_-n, 2014-ko \_\_\_\_\_-ren \_\_\_\_ a.

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadura eta zigilua